**Fourteen illustrated instructions in Basque on the necessity of taking precautions when handling blood or fluids contaminated with blood to avoid transmitting HIV, hepatitis B and other related infections; an advertisement for AIDS prevention by the Eusko Jaurlaritza Gobierno Vasco. Colour lithograph, ca. 1996.**

**Publication/Creation**

[Basque provinces] : Eusko Jaurlaritza Gobierno Vasco, [1996?]

**Persistent URL**

https://wellcomecollection.org/works/fvtdwrre

**License and attribution**

Conditions of use: it is possible this item is protected by copyright and/or related rights. You are free to use this item in any way that is permitted by the copyright and related rights legislation that applies to your use. For other uses you need to obtain permission from the rights-holder(s).

wellcome collection

Wellcome Collection
183 Euston Road
London NW1 2BE UK
T +44 (0)20 7611 8722
E library@wellcomecollection.org
https://wellcomecollection.org

# HIESaren Prebentzioa osasun esparruan

## NEURRI UNIBERTSALAK



**1**



Ezin dira GIB-ak infektatutako pertsona guztiak identifikatu. Beraz, odola, odolaz kutsatutako jariakinak eta bestelako jariakinak* ere erabiltzerakoan hartu beharreko neurriak paziente GUZTIEKIN hartuko dira: NEURRI UNIBERTSALAK.

**2**



GIB, BHB eta CHB-aren trasmisio okupazionalean funtsez inplikatutako jariakina odola da. Txuak, malkoek, izerdiak, kerruek, goitikek, gernuak eta gorozkiak EZ dute GIB-ik trasmititzen.

**3**



Ustegabeko ziztada baten ondorioz, GIB-az infektatuta gelditzeko arriskua 1000tik 3koa da.

**4**

Estatistiken arabera, pertsonal sanitarioan GIB-az kutsatzeko arriskurik gehien duena da benako ziztada bat egin ondoren edo benaren barnetiko manipulazio bat egiterakoan injekzioko orratsarekin istripua izan duen erizaina.

**5**



Osasun-langileek B hepatitisaren aurkako txertoa hartu behar dute.

**6**



Ebakiak, zauriak eta lesioak lanean hasi orduko estaldu behar dira.

**7**



Eskuak garbitzea neurririk garrantzitsuenetariko bat da osasun-inguruko infekzioak kontrolatzeko.

**8**



Eskularruek ondorio babeslea dute (istripu perkutaneoetan gutxitu egiten dute inokulatutako odol-kantitatea). Beraz, beti erabiliko dira prozedura inbaditzaileak egiterakoan.

**9**



Eskularruak ez dira erabili behar, pazientearen larru ez-irikiarekin kontaktua izaterakoan: miaketa fisikoa, tentsio arteriala hartzea, e.a.

**10**



Orratzak erabili ondoren, ez dira inoiz, ez estalkia ipiniko ezta erabiliko ere.

**11**



Objektu ebakorrak edo punta zorrotzak ontzi gogorretara botako dira eta erabili eta berehala gainera.

**12**



Objektu punta zorrotzak botatzeko diren edukiontziak, erabiliko diren tokian egongo dira.

**13**



Seinalizazio bereziak kendu egin behar dira odola-jariakin* eta ehun-muestretatik, osasun-pertsonalari ematen dioten seguritate faltsoagatik. Gainera, seinalizazio horrek hautsi egiten du paziente guztiek intimitate eta konfidentzialitatera-ko duten eskubidea.



Paziente seropositiboekin eta HIES-dunekin erabilitako ontziteria, mahaitresnak, izarak eta arropa zuria normalak izango dira; garbitzeko, ohizko prozedurak erabiliko dira. Paziente seropositiboek eta HIES-dunek beste gaixoekin batera konpartituko dituzte gelak eta komunak, oso egoera konkretuetan izan ezik.

* Neurri Unibertsalak odolari ezezik, ondoko jariakin hauei ere aplikatu behar zaizkie: likido zefalorrakideo, pleural, sinobial, amniotiko, peritoneal eta perikardikoei, semenari eta bagina-sekrezioei.

EUSKAL KONTSEILU MEDIKOA
EUSKAL HERRIKO ERIZAINTZA-KOLEGIOEN ELKARTEA

EUSKO JAURLARITZA · GOBIERNO VASCO
OSASUN SAILA · DEPARTAMENTO DE SANIDAD

HIESaren PREBENTZIO ETA KONTROLERAKO PLANA
INFORMAZIOKO TELEFONOA :
943-28 26 66